

# Esk LAB

## Euskarazko orduen konpentsazioa

Azken bolada honetan, Enpresak euskara ikasten hari diren langileei eman behar dizkion orduak ematerakoan asko luzatzen ari dela eta gainera ez dizkiola ematen beraiek nahi dituenean, entzuten hari gara. Hala ere ikusi dugu CCOOek langile horiei deitzen hari dela erreklamazioa bideratzeko asmoz; guzti hau ikusita LABek eta ESKak gauza batzuk argitu nahi genituzke.

1.-Gure araudiak garbi uzten du urteko ihardunaldia, urtea bukatu baino lehenago itxita izan beharko duela Enpresak, ez lehenago, eta horrela egiten ez badu ihardunaldiaren gaintik lan egindako orduak, aparteko orduak bihurtu eta bikoiztuta jasoko dira.

2.- Egia da Udaletxean euskarazko ordu horrek langileak nahi duenean jasotzeko aukera izaten dutela, zerbitzuaren beharrak errespetaturik noski.

3.- Gure uztez langileak orduak eskatzen dituen momentuan hartu ahal izatea logikoa izango litzateke, eta ikasleak ikasturtean dituen lanak, azterketak etab. betetzeko balio balira are hobeago; baina aurretik ezan dugunez Enpresak urtea bukatu arte dauka epea orduak emateko.

4.- Guzti hau jakinda, erreklamazioa aurkeztea sokekeri galanta dela, eta norbaiten lan handiak erakusteko besterik ez duela balio dirudi.

5.-Bai LABek eta ESKak Enpresako Komiteak argitu behar duen asuntoa dela uzte dugu eta horretarako ahal dugun bezain pronto eskatuko dugu **Komitea eta Trafiko jabearen** arteko batzarra guzti hau aztertu eta erregulatuko duen araudi bat adosteko.